

Bide Otik

IKUS-ENTZUNEZKO
BESTELAKO
NARRATIBEI BEGIRA

2018

ARTEA ETA
KULTURA

Bilbao

Honekin lankidetzan egina:



Euskal Herriko
Unibertsitatea



Az
Azkuna Zentroa

Alhóndiga Bilbao

www.azkunazentroa.eus

BideOtik IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA

Otsailak 20 - abenduak 18

3€ /  2€

Azkuna Zentroak BideOtik antolatzen du, ikus-entzunezko bestelako narratibei begira jarrita, bideoaren bidez inguruan duguna erregistratu eta irudikatzeke modu berriak ekarriko dizkigun zikloa.

Itxaso Diazek Azkuna Zentroarekin batera koordinatutako programa honen bidez, agerian jarri nahi ditugu bertan, estatuan eta nazioarte osoan sortu eta egin diren bideo-sorkuntzako lanak eta proiektuak, arte-, sorkuntza- eta kultura-arlotik datozen eta ikus-entzunezko hizkuntza modu pertsonal, intimista eta hurbilagoan darabilten pertsonen egindakoak.

BideOtik saioak hilean behin izango dira, asteartearekin, 19:00etan, Bastida Aretoan eta Kulturen Atarian, proiektioaren arabera, eta prezioa 3 eurokoa izango da, 2 eurokoa Azkuna Zentroa txartela edukiz gero.

Sarrerak salgai Infopuntuan eta www.azkunazentroa.eus helbidean

IKUS-ENTZUNEZKO NARRATIBA BERRIAK ZAITZEN

MARIA PTQK

Kultura-arloko ekoizlea eta ikertzailea

2015ean Blde0tik programa abiatu zenetik izan naizen saio guztien artean, bi geratu zaizkit tinko gogoan.

Lehena Isabel Herguera animazioko sortzailearen filmografiari eskainitako saioa da. Haren lan klasiko batzuk eta oraintsuagokoak diren beste batzuk proiektatu ondoren –egileak berak iruzkinduak denak, konplexurik gabe aletu baitzituen esperientziak, zailtasunak eta malabarismoak–, lan-koadernoen bilduma jarri zigun eskura. Tamaina desberdinetako blok koloretsuak, zirriborroz, jatorrizko marrazkiz, oharrez, eszenen eta pertsonaien arkatzez egindako lehen eskemen storyboardez, eta gidoi-zirrimarrez eta marrazki-zatiz beterik. Nire ustez, pribilegioa da material-mota hori bertatik bertara ikustea, oso baliotsua eta gutziz errutinakoa baita aldi berean. Nekez eskuratu ahal den materiala da, baina sarritan esangura ugari ditu artista baten lanaz edota amaitutako haren obrak.

Bigarrena 'Cromosoma cinco' webdokaren saioa da. Hanka bat zinema-errealitatean eta bestea dokumental zientifikoa jarriarik, Andrea izeneko

neskaren dibertsitate genetikoaren kasua lantzen du, neskaren familiaren egunerokotasunetik abiatuta, eta Maria Ripoll errealizatzailearen eta Andreamen ama eta obrako zuzendarikidea den Lisa Pram argazkilariaren eskutik. Tankera honetako lan batek behar dituen oreka zailz gain –esate baterako, indarrez sartu gabe begiratzeko behar den distantzia doia kalkulatzeko, edo 'gaitz arraro' bat erretratatzeko kontakizun klinikoaren estereotipoetan sartu gabe–, Pram-en paperaren konplexutasuna hartu behar da kontuan, ama, egilekidea eta protagonistakidea baita aldi berean. Proiekzioaren ondoko eztabaidan, itzulingururik egin gabe erantzuten die gure galderei, eskuzabal eta gordin; eta, Hergueraren saioan bezala, horrek ohiz kanpoko gertaera baten aurrean nagoela sentiarazten dit.

Formatu txikiak, Blde0tik programak proposatzen duenaren modukoak, oso egokiak dira mota honetako bileretarako, intimitateak bide ematen baitu komunikazioak tonu hurbila, adiskidetsua eta konfiantzazkoa izan dezan. Alabaina, formatua ez da bakarrik ikusle-kopuruen edo aretoak duen tamainaren ondorioa. Izan ere, giro-kontua da gehienbat. Giroa sortzen jakin behar

baita, temperatura bat, lana erakustera eta lana lehenbizikoz ikustera joaten garenen artean. BideOtik programa berezia da eta berezko nortasuna du, batez ere, urteen poderioz, ondo asmatu duelako giro abegitsua sortzen gonbidatuen prozesu sortzaileak partekatzen. Giro enpatikoa eta arduratsua. Izan ere, ematen du aretoko lagun guztien ustez zeregin zaila dela proiektu artistiko baten -ikus-entzunezko edo bestelako proiektu baten- 'kodea irekitzea', artearen (artelanaren edo artistaren) babes mistikoa urratu behar baita, lanbide artistikoaren -kasu honetan, ikus-entzunezko sorkuntza garaikidearen- errealitatea azaltzeko.

Batek behin esan zuenez, film bat urtetan prestatu, hilabetetan filmatu, astetan muntatu, bi ordutan ikusi, eta minutu batean ahazten da. Hori egia bada, BideOtik programak bereziki nabarmentzen du obra kontsumitu aurreko denbora luze eta ikusezin horietan gertatzen dena, obra ezohiko eta esperimental baten aurrean gaudenean, haren hizkuntza, formatua, ekoizteko edo banatzeko mekanismoa, egiletzaren kudeaketa, artetik kanpoko prozesuekiko lotura edo bestelako kontuak aintzat hartuta. Horregatik, tituluak eta artisten hautuan BideOtik programak ikus-entzunezkoen berrikuntza-arloaren oso ikuspegi zabala aurkezten du, genero, formatu eta erregistroei dagokienez, eta bideo-ziklo bat edo banaketa-espazio bat baino askoz gehiago da. Neurri handi batean, narratiba berri horien baldintzak lantzeko elkargune bat ere bada, haietan interesa duten pertsonak -sortzaile edo ikusle gisa- esperientziak, galderak eta prozesuak partekatzen moduko tokia. Hitz egiteko, elkar ezagutzeko eta zaintzeko (filosofia feministak termino horri ematen dion zentzuan) espazio bat, behar-beharrezkoa garai hauetan. Izan ere, 'egile' obra

esperimentalak gero eta eskuragarriagoak izan arren (biltegi askeetan, adibidez, Archive edo Ubuweb-en, edota streaming kanaletan, hala nola Filmin edo Fandor-en), gehienetan obra horiek finantzatzeko, ekoizteko eta banatzeko baldintzak beti bezain bazterrekoak eta badaezpadakoak dira gaur egun.

Ilido horretan, ziurren, BideOtik programa ezin da ulertu haren inguruabarrak albo batera utzita. Alde batetik, Itxaso Diaz zuzendariaren eta Azkuna Zentroko programazio-taldearen arteko baterako komisariotza-prozesuaren ondorioa da, gonbidatutako komisarioekin partekatua (Txuspo Poyo 2017an), eta hezkuntza-arloa ikaskuntzako formatu eta esperientzia desberdinekin zabaldua (Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateekin eta CIPF Tartanga Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuarekin batera). Bestetik, Itxaso Diazen ibilbideari estu lotutako proiektua da, narratiba berrien bilaketan murgilduta ikus-entzunezko sortzailea eta istorioen barnealdetik begiratzeko interesa duen dokumentalista den aldetik. Diazen ikus-entzunezko produkzioan borondate nabaria dago proiektuen atzean dauden pertsonak erretratatzeko eta, orobat, bilguneak eta elkarguneak zabaltzeko, hala tr3inta lan seminalean, 2000. urtearen hasieran jardunean zeuden Bilboko 30 artistari eta kulturako agenteri egin baitziren elkarrizketa; nola iraupen luzeko Docuyourself proiektua osatzen duten 12 pieza laburretan, protagonistek berek grabatutako materialarekin muntatuta baitago, edota parte-hartzean oinarritutako lan ugarietan eta talde- edo sorkuntza-lanei eta bizitzako istorioei buruzko dokumentaletan.

BideOtik programaren identitate indartsu hori da, hain zuzen, ikus-entzunezko beste

programazioetatik bereizten duena; balio hori du bereizgarri, baina ez da erraza erreproduzitzea. Eta, horregatik, komisario-lanaren edo programazio kulturalaren azpian dagoenaren adibide egokia da. Izan ere, lanbide honetan kontua ez da bakarrik titulu eta izen propio batzuk hautatzea, denbora luzean (eta ikusezinean) zabaltzen baita, eta, hor, ezinbestekoa baita konfiantzazko harremanak eratzea, eta, gainera, arrakastaren giltza ez baita ikusle-kopurua edo ekarritako obren edo artisten ospea, baizik eta giro egokia lortzeko gaitasuna. Eta ezin ukituzko zera hori azaltzen da ikusleek, banaka zein elkarre profesionalen edo amateurren kide gisa (hitzez hitzeko zentzuan, hau da, amorante gisa), praktiken komunitate bateko parte direla sentitzen dutenean, eta hor partekatzen dituzten esperientziek testuinguru solido eta substratu aberastu batez hornitzen dituztenean narratiba berri horiek.

URTEKO
PROGRAMA

1

IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA

URTARRILA-OTSAILA-MARTXOA-
APIRILA-MAIATZA-EKAINA-UZTAILA

Otsailak 20 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. solairua

DISTRICT ZERO

Martxoak 13 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. solairua

SOY CÁMARA

Apirilak 10 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. solairua

ARAN CALLEJA.
'LA MÚSICA DE CINE:
EL ARTE DEL ENGAÑO'

Kulturen Atariko Pantaila

IGOR REZOLA

Ekainak 12 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. solairua

IKUS-ENTZUNEZKO LANEN
ERAKUSKETA UPV/EHU ETA
TARTANGA LHIBKO IKASLEAK

2

IBILBIDEAK

URRIA-AZAROA-ABENDUA



Asteartea, urriak 16. 19:00
Bastida Aretoa. -2. solairua

ANA DIEZ

'Elvira Luz Cruz, pena máxima' (1985)

Asteartea, azaroak 20. 19:00
Bastida Aretoa. -2. solairua

MERCEDES ÁLVAREZ

'El cielo gira' (2004)

Asteartea, abenduak 18, 19:00
Bastida Aretoa. -2. solairua

HIRU BEGIRADA

Mirentxu Loyarte, 'Euskal Emakumeak' (1981)

Bego Vicario, 'Haragia' (1999)

Estibaliz Sádaba, 'The garbage girl' (2007)

SARRERAK SALGAI
INFOPUNTUAN
(informazio gunean) eta helbide
honetan www.azkunazentroa.eus

01.

BIdeOtik

Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira

ITXASO DIAZ

Bideo-sortzailea eta BIdeOtik zikloaren koordinatzailea

2014. urtean, BIdeOtik programako ideia-aren eta diseinuaren inguruan lan egiten hasi ginenean, denboran zehar garatu nahi genituen hiru kontzeptu zeuden. Lehenengoa ikus-entzunezko lanen eta haien egileen artean **elkar topatzeko eta bistaratzeko gune atsegin bat sortzea** izan zen. **Hezkuntzako testuinguruarekin harremana finkatzea** zen bigarren kontzeptua, zubiak eta elkarrizketak eraikiz, ikasleei gure garaiko sorkuntza-lan horietako batzuk hurbilduz eta haiek Azkuna Zentroan hilabetez hilabete izaten diren saioetako partaide bihurtuz.

Eta hirugarren kontzeptua, batik bat narrazio-aniztasuna jorratu nahi duen bideo-tresnaren inguruko **komunitate bat eragitea**.

Hiru edizio joan eta gero, pozik egiazta dezakegu pausoz pauso, hilabetez hilabete, urterik urte, BIdeOtik hiru kontzeptu horien inguruan finkatzen ari dela, topaketak eraginez, prestakuntza eraginez, komunitatea eraginez... egiten ari garaia ez dugula bakarrik egiten eta, gainera, interesa pizten duela sentitzen laguntzen digun familia txiki hori handituz. Horren harira, **BIdeOtik**

2018 praktika horien jarraipen gisa aurkezten dugu, orobat, urteko programa osatzen laguntzen diguten kideen arteko elkarlana eta koordinazioa eskatzen duten praktikak dira. Lehenengo, hilabetez hilabete ikus-entzunezko proposamenak aurkeztera gure zentzura etortzen zaizkigun egileak. Bigarren, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako nahiz Gizarte Zientzien eta Komunikazioko fakultateek eta Tartanga LHII osatzen duten **hezkuntza-testuingurua**: hezkuntza-esparrutik hurbileneko arloan, Blde0tik-en eskaintza zabalitzen dute solasaldi eta tailerren bitartez.

Beti bezala, Azkuna Zentroko programazio-sailarekin batera lana elkarrekin eginez, programa heterogeneoa diseinatu dugu, eta tokiko testuingurua eta Espainiakoa hartu dugu aintzat. Otsailean hasiko gara, ARENA ikus-entzunezko komunikazioko ekoizpen-enpresa nafarraren dokumental bat aurkeztu eta proiektatuz: **Distrit Zero** da, **Jorge Fernandez Mayoral**, **Pablo Tosco** eta **Pablo Iraburuk zuzendutako lana**. Siriako errefuxiatuen mugikorren memoria-txartelen bitartez irudiak eta soinuak berreskuratzeari buruzkoa da; nor gara eta nola identifikatzen gara galderen inguruan ardatza kokatuta, identitate-ariketa interesgarria da. Martxoan **Soy cámara** programako taldearen zati bat (CCCB, Bartzelona, **Ingrid Guardiola** edukien koordinatzaile eta ekoizle dela, **Andres**

Hispano eta **Félix Pérez-Hita** kuratore direla) Blde0tik-era etorriko dira gaur egungo gizarteko gai premiazkoenei buruz garatzen diren eta gogoeta egiten duten ikus-entzunezko formatu berriak adierazi eta partekatzeko. Apirillean, Bilboko **Aranzazu Calleja** musika-konposatzaileak soinu-bandak lantzearen gorabeherak partekatuko ditu ikusleekin, izenburu honekin **La música de cine: el arte del engaño (Zinemako musika: engainatzeko artea)**. Maiatzeko Blde0tik programako saioa atariko pantailan izango da, eta han Itsasondoko (Gipuzkoa) **Igor Rezola Iztueta** artista eta ikerlariaren lanak ikusi ahal izango dira egun oso batean zehar. Nola Rezolaren praktika artistikoa, hala haren ikerkuntza teorikoa lanaren ideia-aren inguruan dute ardatza. Hori guztia bere langile esperientziarekin lotuta dago: metal arloko langile gisa lehenik, eta arte esparruko langile gisa geroago. Ekainean izango den **UPV/EHUko eta CIFP Tartangako lanen erakusketa** saioarekin bukatuko da programa.



DISTRICT ZERO

2015

Jorge Fernandez
Pablo Tosco
Pablo Iraburu
65'

Otsailak 20 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. solairua

Zer ezkututzen da errefuxiatu baten telefonoaren barruan? Hor daude bilduta haren oroimenak, identitatea, ihes egin duen munduarekiko kontaktuak. Film honetan, denda txiki bateko eguneroko bizitza agertzen da: dendan telefono mugikorrek konpontzen dira, munduko errefuxiatuen esparrurik handienetako batean.

[+ http://www.districtzero.org](http://www.districtzero.org)

Aspalditik nahi genuen errefuxiatuen gaia landu. Hainbat bidaiatan ikusi dugu haien mundua, gure artean ezkutatuta dagoena: ihesa, sustrairik ez izatea eta, askotan, itxaropen eza. Ez-mundu moduko zerbait, guretzat ikusezina izan arren, erraldoia, izugarria eta gero eta handiagoa dena. Gai horrek maila pertsonalean ukitzen gaitu, eta landu egin nahi genuen. Baina ez genekien noiz, non edo nola egin.

Orduan, aukera izan genuen Europako Batzordeak eta Oxfam-ek (Espainiako Oxfam Intermón-ek) gidatutako 'EU saves Lives – Tú salvas vidas' proiektuaren barruan zerbait egiteko, eta hori, guretzat, ondo egindako gauza erabilgarrien bermea da. Beraz, erabaki genuen haiekin batera zerbait egitea, ahalik eta ikusle gehienei erakusteko zer den errefuxiatua izatea, zer esan nahi duen hitz horrek.

Orduan, erabaki sortzaile eta oso arriskutsu bat hartu genuen: hedabideek diotenez, 59,5 milioi errefuxiatu eta lekualdatu daude. Har dezagun bakar bat. Hala, baten bila hasi, eta Maamun aurkitu genuen.

Munduko errefuxiatuen esparrurik handienetako batean bizi da Maamun. Jakin genuen haren jardun profesionalak –telefonoak konpontzeak, argazkiak inprimatzeak– zerikusi handia zuela identitatearekin, eta guk horretaz hitz egin nahi genuen. Antzina, errefuxiatuak bere etxeko gauzarik funtsezkoenak eramaten zituen aldean: lapiko batzuk, arropa, objektu baliagarriren bat. Gaur egun, munduko bazter guztietan, errefuxiatuak telefono mugikorra izaten du aldean, hor gordetzen baititu bere kontaktuak, oroitzapenak eta atzean utzitako munduarekin duen lotura. Maamun-ek aukera ematen zigun errefuxiatutako pertsonaren funtsaz, haren identitateaz hitz egiteko. Eta horrek bide ematen zigun ikusleengana jotzeko, galderak egiteko eta haien identitatea bera zalantzan jartzeko.

PABLO IRABURU, JORGE FERNÁNDEZ MAYORAL, PABLO TOSCO.

ARENA COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL eta TXALAP.ART-en ekoizpena. OXFAM eta Europako Batzordearen laguntzaz eta MAAMUN AL-WADI eta KARIM RAJABen parte-hartzeaz egina.

Ekoizpen-zuzendaria: MARGA GUTIÉRREZ

Ekoizpeneko lehen laguntzailea: OHIANE IRIARTE

Ekoizpeneko laguntzaileak: ISMAEL IBRAHIM ALBES ETA TARIQ ARABIAT

Zuzendariak: JORGE FERNÁNDEZ MAYORAL, PABLO TOSCO ETA PABLO IRABURU

Argazkiko zuzendaria: Pablo TOSCO

Soinu-zuzendaria: MIGUEL GARCÍA

Muntaketa: JORGE FERNÁNDEZ MAYORAL ETA MIGUEL GARCÍA

Banaketa: ITZIAR GARCÍA ZUBIRI

Postekoizpena: NURIA PÉREZ


Itzulpena: YASSINE BANOMAR

Ekoizpeneko idazkaria: RAKEL CASTERA ETA LARA ETXAURI

ALIA VOX argitaletxearekin editatutako musika

JORDI SAVALLen musika-zuzendaritzaz

Tema gehigarria: MIKEL SALAS



¿CÓMO NO VOY A USAR LAS IMÁGENES QUE METIDO EN MI CABEZA? HABÉIS

SOY CÁMARA

Andrés Hispano
Félix Pérez-Hita
Ingrid Guardiola
CCCBren ekoizpena

Martxoak 13 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. solairua

'Soy Cámara' sareko ikus-entzunezko formatu berrien laborategi bat da, eta CCCBk ekoitzi du hainbat unibertsitaterekin eta errealizadoreekin batera. Sareko ekosisteman parte hartzeko espazio esperimetal honetan, hausnarketa egiten da egungo gizartean dauden gairik premiazkoenei buruz, eta berariaz nabarmentzen da nola ekoizten diren irudiak, hala esparru tradizioaletan nola Interneten.

-Ikus-entzunezko mikroformatuak garatzen dituzte bideo-saiakeratik abiatuta.
-Interneten garaiko irudien ekoizpenaz hausnartzen dute.
-Elkarlanean aritzen dira ikus-entzunezko fakultateekin, proiektua laborategi eta gela ireki baten modukoa izan dadin, eta onura izan dezan ikasleengan.
-Zeharka egiten dute lan unibertsitateekin eta kanpoko errealizadoreekin, edukiak eta diskurtsoak zeharka eta modu ireki batean ekoizteko eta sortzeko.

[+ http://www.cccb.org/es/marco/ficha/soy-camara-online/34794](http://www.cccb.org/es/marco/ficha/soy-camara-online/34794)

ANDRÉS HISPANO: *Ikus-entzunezko errealizadorea, komisarioa, pintorea eta artikulugilea*


FÉLIX PÉREZ-HITA: *Errealizadorea, gidoilaria eta editorea*

INGRID GUARDIOLA: *Irakaslea eta kulturako ekoizlea*



ARAN CALLEJA

'LA MÚSICA DE CINE: EL ARTE DEL ENGAÑO'



Apirilak 10 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. solairua

Azken urteetan, zinemako musikara gerturatzeko dudan modua eraldatuz joan da, ikusle eta sortzaile ikuspegitik. Eraldaketa horren funtsezko elementuetako bat musika eta musikaz egiten den erabilera bereiztea izan da.

Zinemako elementurik sinesgaitzena musika da, eta, bitxia bada ere, film bati errealitatea eta objektibotasuna modurik erabakigarrienean ematen dion elementua ere bada aldi berean. Hori da zinemako musikaren azterketan aurkitzen dugun paradoxa: elementu subjektiboa, izaera irrealakoa, baina filmari errealitate handiagoa emateko gaitasuna duena.

 <http://aranzazucalleja.com>

Musikak liluratu egiten gaitu bere xedea behar bezala betetzen duenean, musikaz ohartu ere egiten ez garenean, amarrua hautematen ez dugunean. Zoragarriena zera da, musikaz berez ez duela gezurrik esaten; irudiari ezartzean ematen diogu errealitatea manipulatzeko gaitasun hori. Zinema gezur handi bat denez, musika zinematografikoaren zeregina amarrua estaltzea da, eta konposatzailearen eginkizuna, berriz, 'iruzurra egitea'.

Saio honen xedea da zinemako musika-konposatzaile gisa dudan sormen-prozesuaren ernamuina aztertzea eta partekatzea, eta, aldi berean, dagoen harreman sinbiotikorik magikoenetako bati buruz hausnartzea.

IGOR REZOLA

Kulturen Atariko Pantaila



Lana ez da betidanik izan gaur egun ulertzen dugun zentzuan; gaur egungo zentzu hau kapitalistekin eta proletarioekin agertu zen. Eraikin historikoa eta soziala da. Gaur egun lana aipatzen denean, soldatapeko jarduera bat aipatu nahi da, bizitza ateratzeko eta dirua irabazteko modu bat. Baina lan hori giza beharrez arduratzeko sozialki egin behar den lanaren zati bat baino ez da. Izan ere, enpleguaz eta merkatuaz harantzago, bizitzari eusten dioten prozesu guztiak dira ekonomia.


Zentzu horretan, lan nagusia, ekoizpenaz eta bizia zaintzeaz arduratzen dena, etxeko lana edo ugalketa-lana, devaluatu egin da, ikusezin bihurtu da, eta ez da uste zeregin hori lana ere denik. Aldi berean, ekoizpena eta jarduera soziala bat etorri ohi dira. Ekoizpeneko denbora eta kontsumokoa disolbatu egin dira, eta gaur egun

banaezinak dira. Mendebaldeko gizarteetan, ekoizpenaren, azelerazioaren, hazkunderaren eta lehiakortasunaren logikak mendean dituen gizarte horietan, bizitzako segundo bakoitzari zukua atera nahi zaio, autorrealizazioa nahi dugulako, eta, horren ondorioz, denbora librean lanaren luzapen bilakatu da, bitarteko desberdinen bidez: aisia, dibertsioa, komunikazioa, harremanak..

Egiten diren jarduera asko ez dira lantzat hartzen, ez dira ekonomialarien kutxa erregistratzaileetan agertzen, baina ezinbestekoak dira ekoizpen eta pilaketa kapitalistaren prozesurako, baita bizitzari eusteko ere. Rezolaren ikus-entzunezko proposamenek lanaren nozioari lotutako auziak aztertu nahi dituzte, lana zentzurik zabalenean hartuta, eta jarduera horretan dauden kontraesanak ere hartzen dituzte ikergai.

IKUS-ENTZUNEZKO LANEN ERAKUSKETA UPV/EHU ETA TARTANGA LHIBKO IKASLEAK

Euskal Herriko Arte Ederren Fakultateko eta Komunikazio
Fakultateko eta Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuko
ikasleen ikus-entzunezko lanen aukeraketa.



Ekainak 12 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. solairua

Azkuna Zentroak Euskal Herriko Arte Ederren eta Komunikazio fakultateekin eta Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuarekin izan duen elkarlanaren ondorioz, BldeOtik programaren edizio honetan lanak erakusgai izango dituzten artistetako batzuek ikus-entzunezko prestakuntza ematen duten zentro horietan antolatutako tailerretan hartu dute parte. Ekaineko saioan, ikasleek hautatu, eta ikasturtean zehar egin diren lanak egongo dira ikusgai. Lan horietako batzuk BldeOtik programan parte hartutako ikus-entzunezko artistekin esperientziak partekatu ondoren prestatu dira.

02.

IBILBIDEAK

Ertzetatik, bestelako begiradak

IRATXE FRESNEDA

Irakaslea, zinemagilea eta ikus-entzunezko ikertzailea

IBILBIDE batzuek aurrera egiten dute ertzak erregistratzen, identitate ikusezinen bila. Errealitatetik sortutako sekuentziak, gure gizartearen linboan dauden bideetatik atera, eta muntatze-fasean altxatzen direnak, ibilitako bideetatik urrun gertatzen dena erakutsiko duten forma berriak sortzeko. Denbora gelditu egiten da, kamerak jaso, eta sortzaileak iragazi eta gara ditzan hala paisaiarik onirikoena nola sekuentziarik gordin eta korapilatzen zailenak. IBILBIDE batzuek irudi esploratzailea, askea eta

alderraia lortu nahi dute, sarritan beste mundu batzuetara zabalik dagoen leiho bat izaten jarraitzen dena. Zein lekutatik eta erreferentziatetik abiatzen da ikus-entzunezkoen erregistroa XXI. mendean?

Begi-zinetik ikusteko moduetara, mugimenduan dagoen irudiak errearen ikuspegiak sortzen ditu, eta, batzuetan, beste irudikapenen magiara egiten dute ihes. Hauek dira begiradaren ertzetako ibilbide horietako batzuk.

Ana Diez

'Elvira Luz Cruz, pena máxima' (1985)

Ana Diez errealizadorea arlo errealean zailduta dago, kontakizun handietan agertzen ez diren istorioetan. Haren erregistratzeko moduak 'ilunetik' sortzen den poetikarekin eta erretratatuarekiko urruntze arin batekin du zerikusia. Haren obra -hala 'Elvira cruz, pena máxima' eta 'Ander eta Yul', nola 'Galindez'- ezinbesteko ekarpena da gaur egungo ikuskeretarako.

Mercedes Álvarez

'El cielo gira' (2004)

Espazioek eta haren memoriak Mercedes Alvarezen obra zeharkatzen dute. Egunerokotasunaren, memoria eta bizitza xumearen poesia haren ikus-entzunezko proposamenaren parte dira. 'El cielo gira' Estatu espainiarrean azaldu diren 'bestelako zinemek' egindako ikus-entzunezko piezarik interesgarrienetako bat da. Era berean, 'En construcción' (José Luis Guerín, 2001) muntatzaile gisa duen ikuspegiaren emaitza da. Bi film horiekin, bestelako bide bat eta aukera berriak zabaldu zituen sorkuntzako dokumentalaren arloan.

Hiru begirada

Mirentxu Loyarte, 'Euskal Emakumeak' (1981)

Bego Vicario, 'Haragia' (1999)

Estibaliz Sádaba, 'The garbage girl' (2007)

Erreala, uki daitekeena berriz prestatuz, miszelanea honetan batutako ikus-entzunezko hiru piezek proposamen sinboliko bat bideratzen digute, munduari begiratzeko era jakin bat, inguruan dugun errealitatearen aurrean hartutako jarrera bat. Hautatutako obrek emakume sortzaile, errebelde eta jakin-minen aitzindari-taldeko kide izateko egindako joko esperimentalaren emaitza dira.



ANA DÍEZ

Ana Díez errealdorea arlo errealean zailduta dago, kontakizun handietan agertzen ez diren istorioetan. Haren erregistratzeko moduak 'ilunetik' sortzen den poetikarekin eta erretratatuarekiko urruntze arin batekin du zerikusia. Haren obra -hala 'Elvira cruz, pena máxima' eta 'Ander eta Yul', nola 'Galindez'- ezinbesteko ekarpena da gaur egungo ikuskeretarako.

Asteartea, urriak 16. 19:00

Bastida Aretoa

'Elvira Luz Cruz, pena máxima' (1985)

Zuzendaritza: DANA ROTBERG, ANA DÍEZ

ekoizpena: GAIKUNTZA

ZINEMATOGRAFIKOKO ZENTROA

Gidoia: DANA ROTBERG, ANA DÍEZ

Fotografia: EDUARDO HERRERA,

SERGIO GÓMEZ (C)

Muntaketa: DANA ROTBERG, ANA DÍEZ

Soinua: JUAN PABLO VILLASEÑOR

Pertsonaiak: MIREYA TOTO,

M^a CONCEPCIÓN FERNÁNDEZ

Iraupena: 44'

1982ko abuztuaren 9an, Elvira Luz Cruz izeneko 26 urteko emakume mexikarra aurkitu zuten konorterik gabe, lau seme-alaben gorpuen ondoan. Bizi arteko espetxe-zigorra jarri zioten. Legeen eraginkortasunik ezaren eta epaiketako irregulartasunen ondorioz, talde feministen eta giza eskubideen aldeko taldeen arreta erakarri zuten. Taldeen iritziz, Elvira errudun jo zuten, emakumea, pobrea, indigena eta analfabetoa zelako. Ana Diezek eta Dana Rotbergekin ikus-entzunezko bidaia bat egin zuten, eskola-ariketa baten gisa hasita, errealtatearen sakoneraino iristeko.

SARIAK

Mexikoko Kritikari Zinematografikoen

Elkartearen 'Zilarrezko Jainkosa' eta

Mexikoko Zinema Akademiaren 'Ariel' saria.

Wanda Visión
presenta

INTERNATIONAL
film
FESTIVAL
ROTTERDAM
TIGER AWARD A LA MEJOR PELÍCULA
2005
BEST FILM

FESTIVAL DE PARIS
"CINEMA DU REEL"
MEJOR PELÍCULA
- GRAND PRIX -

el cielo gira - *The Sky Turns* -

una película de Mercedes Alvarez

con PELLO AZKETA y los habitantes de ALDEALSEÑOR

Guión MERCEDES ALVAREZ y ARTURO REDÍN Director de fotografía ALBERTO RODRÍGUEZ Ayudante de dirección ABEL GARCÍA Montaje SOL LÓPEZ y GUADALUPE GARCÍA
(y la colaboración de JULIA JUANIZ y LAURENT DUFFRECHE) Producción MIKEL HUERCANOS y EVA SERRATS Productor delegado JORDI BALLÓ Productor ejecutivo JOSE Mª LARA
Dirección MERCEDES ÁLVAREZ

Un film iniciativa del Master de Documental de Creación de la Universitat Pompeu Fabra (Barcelona)
una producción de JOSÉ Mª LARA P.C. y ALOKATU S.L.



MERCEDES ÁLVAREZ

Espazioek eta haren memoriak Mercedes Alvarezen obra zeharkatzen dute. Egunerokotasunaren, memoria eta bizitza xumearen poesia haren ikus-entzunezko proposamenaren parte dira. 'El cielo gira' Estatu espainiarrean azaldu diren 'bestelako zinemek' egindako ikus-entzunezko piezarik interesgarrienetako bat da. Era berean, 'En construcción' (José Luis Guerín, 2001) muntatzaile gisa duen ikuspegiaren emaitza da. Bi film horiekin, bestelako bide bat eta aukera berriak zabaldu zituen sorkuntzako dokumentalaren arloan.

Asteartea, azaroak 20. 19:00

Bastida Aretoa

'El cielo gira' (2004)

Zuzendaritza: **MERCEDES ÁLVAREZ**

Ekoiizpena: **JOSÉ MARÍA LARA**

Gidoia: **MERCEDES ÁLVAREZ,**
ARTURO REDÍN

Fotografia: **ALBERTO RODRÍGUEZ**

Muntatze-lana: **SOL LÓPEZ,**
GUADALUPE PÉREZ

Soinua: **AURELIO MARTÍNEZ,**
AMANDA VILLAVIEJA

Aktoreen zerrenda: **PEIO AZKETA, ANTONIO**
MARTÍNEZ, JOSÉ FERNÁNDEZ,
SILVANO GARCÍA...

Iraupena: 106'

Europar biztanle gutxien duen eskualdean kokatuta –Soriako probintzian, biztanleen %75ek baino gehiagok 75 urtetik gora dutela–, Aldeaseñor herrian, 14 biztanle daude gaur egun; gazteena, 48 urtekoa; zaharrena, 1900. urtean jaiotako andre bat. Azken belaunaldia dira, zortzi mendez etenik izan ez duen historia baten ondotik. Ezer ez du

honezkeror zuzenduko denboraren erorketa, bere baitan bilduta dagoen mundu honetan. Gaur, bizitzak aurrera egiten du. Hemendik gutxira, ahitu egingo da, zalapartarik sortu gabe eta bestelako lekukorik gabe. Bisitariarentzat, eremuak eta artadiak dituen paisaia hau, harrizkoa bada ere, ukitu gabe gorde da, aratz, denboren aldaketaren aztarnarik eta arrastorik gabe. Mundu hau pintore baten interes pertsonalen eta artistikoen artean sartuta dago: Pello Azketa, 48 urte dituela, herrira iritsiko da bere emaztearekin, etxe bat alokatu, eta han denboraldi labur egiteko asmoz.

SARIAK

Malagako Zinemaldia: Dokumentalik onena.

Idazle Zinematografikoen Zirkulua: Errebelazio-filmik onena, muntaketarik onena.

Rotterdam Film Festival: Filmik onena.

Festival du Cinéma du Réel, Frantzia: Filmik onena.

Buenos Aires Festival Internacional de Cine Independiente: Filmik onena, Ikusleen saria, FIPRESCI saria.



HIRU BEGIRADA

Mirentxu Loyarte 'Euskal Emakumeak' (1981)

Bego Vicario 'Haragia' (1999)

Estibaliz Sádaba 'The garbage girl' (2007)

Erreala, uki daitekeena berriz prestatuz, miszelanea honetan batutako ikus-entzunezko hiru piezek proposamen sinboliko bat bideratzen digute, munduari begiratzeko era jakin bat, inguruan dugun errealtatearen aurrean hartutako jarrera bat. Hautatutako obrek emakume sortzaile, errebelde eta jakin-minen aitzindari-taldeko kide izateko egindako joko esperimentalaren emaitza dira.

Martes, 18 de diciembre, 19:00h

Bastida Aretoa

Mirentxu Loyarte
'Euskal Emakumeak' (1981)

Iraupena: 10'

Hizkuntza: Euskara

Jatorrizko formatua: 35 mm.

'Euskal Emakumeak' (1981) emakume batek egina dagoen Ikuska bakarra da. Loiartek XX. mendearen amaierako gizartean emakumeak betetzen zuen espazio soziopolitikoak marrazten digu hemen. Gorrira biratuta, film labur dokumental hau begirada zorrotzez gerturatzen da 80ko hamarkadan emakumearentzat ziren espazioetara, merkatuetara, haur-parkeetara, arrain-fabriketara eta gizonen pixalekuetara.

Mirentxu Loyarte (Iruñea, 1938) euskaraz modu profesionalen filmatu zuen lehen emakumea dela jotzen da. Debutean, hirurogeita hamarrek hamarkadan Estatu espainiarrean egindako ariketa zinematografikorik ausart eta arriskutsuenetako bat egin zuen: Irrintzi (1978). Obra ikus-entzunezko metafora bat da, euskal herritarren identitate kolektiboaz hausnarketa egiten du, eta Espainiako Zinematografiako Zuzendaritza Nagusiaren kalitateko sari berezia eskuratu zuen. Erbestealdien eta itzuleren artean, 1981ean Ikuska 12 egin zuen, 'Euskal Emakumeak', bere azken lan zinematografikoa. Amaitu gabe utzitako proiektuak gorabehera, sekula ez dio utzi zinemagile izateari.



Bego Vicario
'Haragia' (1999)

Iraupena: 11'

Hizkuntza: Euskara

Jatorrizko formatua: 35 mm.

Desagertuei buruz hitz egiten dugunean, gorputzik gabeko heriotza birtual batez ari gara. Baina agurutako horien gorpua ikusi behar dugu, agurtu ahal izateko

Bego Vicario (Caracas, 1964) UPV/EHUko irakaslea da. Artista eta ekintzailea da, eta askatasun osoz eraldatu ditu ikus-entzunezko mintzairaren arauak eta kodeak, animazioko teknika desberdinekin jolasean. Haren lanak mundu osotik ibili dira, eta sari ugari jaso dituzte han eta hemen. Eskola-sortzailea eta Euskal herriko animazio esperimentalaren esparruko aitzindaria da, eta gaitasun berezia du egunerokotasunaren gordintasuna artelan bilakatzeko.

Estíbaliz Sádaba
'The garbage girl' (2007)

Iraupena: 5,52'

Formatua: Digitala

Estíbaliz Sádaba artistaren bideo performance hau hainbat museotan eginda dago, eta emakumeak kulturako sektore guztietan hartzen duen bigarren mailako papera salatzen du.

Estíbaliz Sádaba Murguíaeren piezak (Bilbo, 1963) edukiontzien modukoak dira; haietan hitzak eta irudiak ikus-entzunezko artefaktuak sortzen dituzte, eta, txaloaren bila jo ordez, nahastuta uzten dute ikuslea. Sádabak bideo-formatuarekin lan egiten du, diskurtsoen intertestualitatearen jokotik abiatuta. Haren obra esperientzia artistiko komertzialaren ertzetan bizi da, eta arazoaren erdigunetik ernatzen da: artean eta, oro har, gizartean oraindik dauden generoko desparekotasun sakonak.

GURE JARDUETARA IRISTEA ERRAZTEKO NAHIZ JARDUERAZ ENTZUMEN-
GAITASUN HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOIA BEHAR IZANEZ
GERO, ESKA IEZAGUZU.
AZKUNA ZENTROA ESPAZIOA IRISGARRIA DA PERTSONA GUZTIENTZAT.



ZENTROAREN ORDUTEGIA

7:00 - 23:00 ASTELEHENA-OSTEGUNA
7:00 - 24:00 OSTIRALA
8:30 - 24:00 LARUNBATA
8:30 - 23:00 IGANDEA

MEDIATEKA BBK

9:00 - 21:00 ASTELEHENA-OSTIRALA
11:00 - 21:00 LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNA

JARDUERA FISIKORAKO ZENTROA

7:00h - 23:00 ASTELEHENA-OSTIRALA
8:30h - 23:00 LARUNBATAK ETA IGANDEAK

Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen pentsa ezazu ingurumenaren
inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin.
Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.

www.azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus

PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO

944 014 014

Jendetzako ordutegia Infopuntuan eta telefonoan:

Astelehenetik ostiralera: 8:00 - 22:00

Larubat, igande eta jaiegunetan: 9:00 - 22:00



www.azkunazentroa.eus